



# elika

Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria  
Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunerako  
Euskal Fundazioa



# **RASFF TXOSTENA**

## **ELIKAGAIAK**

## **ALERTAK - JAKINARAZPENAK**

**Jakinarazpenen kategorizazioa**

**Jakinarazpenen jatorria**


**Kutsadura iturrien sailkapena**

**Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak**

**2023ko HIRUGARREN LAUHILEKOA**


### JAKINARAPENEN KATEGORIZAZIOA

2023ko hirugarren lauhilekoan elikagaiei buruzko **1485** jakinarazpen izan dira. Horietatik **440** alertak izan dira (%29,5), **552** informazio-jakinarazpenak (%37,5) eta **493** mugan egin diren ukapenak (%33).



### JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % 25,5a Turkiakoak eta Indiakoak, % 23. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdeak Herbeherak eta Polonia izan dira, biek % 13arekin. Afrikaren kasuan, Egiptok, jakinarazpenen %23,5a izan ditu. Azkenik, Amerikaren kasuan EEBBek %57arekin da jakinarazpen gehien sortu dutenek.

### **KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA**

2023ko hirugarren lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) elikagaien 1485 alerta eta jakinarazpen berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturria	%
Iruzurrak	% 22,5
Hondakinak	% 21,5
Kutsadura biologikoa	% 20,5
Toxina naturalak	% 13,5
Kutsadura kimikoa	% 9,5
Produktuaren egoera higieniko txarra	% 5
Metal astunak	% 5
Kutsadura fisikoa	% 2,5



### KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIAK

Toxina naturalek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 49an, kutsadura **AFLATOXINek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **KAKAHUJTEAK** kutsaduren % 44a eragin du. Kasu gehienetan (% 70a) **EEBB** zuten jatorria

**Kutsadura biologikoei** dagokienez, **SALMONELEK** kutsaduren %57a eragin ditu. *Salmonella sp* da talde honetako protagonista nagusia kasuen % 82,5an. **OILASKOA** izan da produktu protagonista %38eko kasuetan, %35eko kasuetan **POLONIA** jatorria zelarik. Beste salmonelei dagokienez, %14a *Salmonella enteritidis* dagokio (**OILASKOAK** eragin ditu kasuen % 96a eta % 61eko kasuetan **POLONIA** izan da jatorria) eta %3,5a *Salmonella typhimuriumi*, kasu honetan ez da produkturik nabarmentzen besteekiko.

Kutsadura biologikoarekin jarraituz, *Listeria monocytogenes* bakteriak jakinarazpenen %15a eragin ditu, **gehien bat haragi-eratorriak, gazta izokin ketuan.**

Fitosanitarioen eta sendagaien hondakinei dagokienez, **FITOSANITARIOAK** %94 izan dira. Nabarmentzen dira, alde batetik, **hainbat fitosanitarioen** presentziagatiko jakinarazpenak (%40), eta, bestetik, European debekatuta dagoen **KLORPIRIFOSA**, jakinarazpenen %27,5an dagoena. Bi kasuetan, ez dago gehiegi nabarmentzen den produkturik, nahiz eta **piperrak, arroza eta belar aromatikoek** jakinarazpen gehiago izan lehenengo kasian, eta klorpirifosaren kasuan, **zitriko desberdinak** (limoiak, laranjak, mandarinak eta pomeloak) eta baita **belar aromatikoak** ere.

Sarearen bidez jakinarazitako **iruzur** guztietatik, % 33 **debeekatutako substantziengatik** izan dira edo **baimendu gabeko osagai berriak** hainbat elikagaitan. **ELIKADURA OSAGARRIAK** nabarmentzen dira kasuen % 71ekin, **EEBB**etik etorriak kasuen % 25ean.

Bestalde,%23,5 **ETIKETAN ALERGENOAK EZ DEKLARATZEARI** dagozkie.

